

ikasi
eta landu

euskara bizia

Eskolak
 On line
 Barmetegiak
 Mintza praktika
 Titulu homologatuak
 Normalizazio planak

Garrantzi ikasteko
gata erabazteko
puntuak konpartitu

eman izena
www.aek.org
 902 362 294

Helduentzako euskara kurtsoen sartzea 2012/2013

Prentsa dozierra



Marengo karrika 22
64 100 BAIONA
05 59 25 76 09
aek@wanadoo.fr

Baiona, 2012ko irailaren 7a

Ikasi eta landu euskara bizia

2012/13 ikasturteko sartze kanpaina

"Euskara bizia" da ikasturte berriko AEKren sartze kanpainako leloa. Zergatik ? Bizi-bizi heldu gara hori bera eskaintzera: euskara bizia ikasi eta lantzeko aukerarik onena. AEKn gertutasuna, inplikazioa eta eraginkortasuna eskaintzen ditugulako, euskararen ezagutza eguneroko bizitzarekin lotzeko asmoz, lanarekin, harremanekin, kulturarekin...

Kurtsoak Gau eskola eta euskaltegian, on line ikastaroak, barnetegiak, taldeentzako ikastaroak, EGA prestaketa, mintzapraktikarako taldeak... Edonoren beharrei egokituriko eskaintza dugu AEKn.

Duela hogeita hamar urtetik gora sortu ziren lehenengo Gau Eskoletatik gatzuzuzenean. Beraz, historia eta esperientzia luzea dugu eta denbora horretan guztian beti ibili gara aurrera begira, ikasteko bide eraginkor eta berrien bila, metodologia eta materialetan ideia eta aukera berriak uztartzen. Instituzioen aldetik sartze honetan, Baionako Herriko Etxeko eta Kontseilu nagusiko langile multxo berri bat euskara ikasten hasiko da, gainerateko lurralde Elkargoetako langileekin batera (140 pertsona 22 taldetan).

AEK-ko Gau Eskola eta euskaltegietan nahi duen orok errexki aurkituko ditu euskara ikasteko behar diren giroa, metodologia eta laguntza. Hurbil eta eskura.

Izenak emaitzeko permanentziak eta kurtsoen hasiera

Izena emaitzeko permanentziak **irailaren 10etik** hasiko dira Ipar Euskal Herriko Gau Eskola guzietan¹. Kurtsoen hasiera **urriaren 1ean** astelehenarekin finkatua da.

Iazko **16 Gau Eskola** lanean jarraituko dira klaseak antolatzen 20 herri desberdinetan, hasierako mailatik alfabetatze mailaraino, EGA-ren prestaketa ahortzi gabe.

Diru laguntzak


- **BEKA Sistema** (ikasleari diru laguntza) Errobi eta Xiberoko herri elkargoetan : duela 2 urte hasi esperientziak segituko du aurten ere Errobi eta Xiberoko herri elkargoetan. Alabainan, Elkargoetako arduradunek helduen irakaskuntza sustatu nahian, diru laguntza sistema bat martxan jarri zuten Euskararen Erakunde Publikoaren laguntzarekin. Lehen urtetik bertatik, ikasleak ordaindu duenaren erdia berreskuratuko du ikastaroaren bukaeran. Ikas-prozesuan aintzinate arau ordaindu beharko duen parte gero eta tipiago izan da beraz. Sistema horrekin ikasleen jarraipena sustatu nahi

¹ Ikus urrunago Gau Eskolara egun eta tenoreak

Norbanakoaren formakuntza eskubidea (DIF): AEK-k soldatapeko langile diren pertsona guziei oroitarazten die DIF orduak erabiltzen ahal dituztela euskarazko formakuntza finantzatzeko. Interesatuak diren guziak dosierra prestatzen lagunduko ditu AEK-k.

AEK-k eskaintzen dituen moduloak eta formakuntzak

- **Arratseko klaseak** : maila guztiak, astean 5 edo 6 ordu urritik ekainera (160/192 ordu) Iparraldeko Gau Eskoletan.
- **Egunezko klaseak** : maila guztiak, astean 6 ordu urritik ekainera Iparraldeko Gau Eskola gehienetan.
- **Enpresa barneko kurtsoak**, moldakuntza jarraikiaren bitartez.
- **Ikastaro intentsiboak** : aste bat martxoan (35 ordu) eta bi aste uztailean (70 ordu).
- **Barnetegiak** : Hizkuntza bat ikasteko ez dago hizkuntza hori hitz egiten deneko ingurunean murgiltzea bezalakorik. Hori dela-eta, egunean 24 orduz euskaraz bizitzeko parada ematen dute AEKren barnetegiak : euskaraz gosaldurik, bazkaldurik eta afaldu ; eguneko zenbait orduz euskara kurtsoak segitu ; eta ordu libreetan euskara hutsean bizi, barnetegia kokatzen den herriko jendearekin harremanetan nahiz barnetegian bertan antolatutako ekintzetan. AEK-k ikasturte osoan eskaintzen du euskara barnetegian ikasteko aukera, Foruko barnetegian (Bizkaia), hain zuzen ere. Euskal Herri osoan hurbiltzen dira ikasleak bertara hilabeteko edo denbora luzeagoko egonaldiak egitera, urritik ekainera bitartean. Iparraldean, neguko nahiz udako oporretan aste bat edo biko ikastaldiak proposatzen ditu AEK-k, ikasprozesuan ahal bezain fite aintzintatzeko.
- **ON-LINE IKASTAROAK:** www.egela.aek.org helbidean, nahi den leku eta ordutan ikasteko. On line ikastaroak iraupen jakineko ikastaroak dira, (20-190 ordu), denbora epe jakinean burutzekoak (hiru hilabete- ikasturtea), eta helburu zehatzekoak. Tutorearen aholkularitza eta jarraipen zuzena eskaintzen dute, baita ikastaldearen laguntza eta ikaskideekin harreman etengabea. Gainera, ikastaro guztiak Moodle software librean erabiliz egiten ditugu euskaldunek hizkuntza hobetzeko eta trebatzeko tresnak atxemanen dituzte, batzuk ordaindunak eta beste batzuk dohaienak, hala nola itzulpen gintza, euskalkiak eta beste.
- **Xede taldeak** : lanbideari loturiko ikastaroak dira (Lurralde kolektibitate, haurtzaindegia, zahar etxeetako langileak..). Ondoko asteetan 140 pertsona ikasten hasi edo jarraituko dute, 22 taldetan.



- **Buraso taldeak** : haurra ikastola edo klase elebidunetan ezarri duten burasoei euskara

ikasi edo hobetzeko talde bereziak proposatuko dizkie AEK-k, haurrarekiko komunikazioa landuz bereziki.

- **EGA diploma** : interneten bidez eta kurtsoen bitartez, Euskararen Erakunde publikoak birdefinitu **EGA** diplomaren prestaketa kurtsoak.
- **Praktika jarduerak euskaltegitik kanpo** : Batzuetan zaila da euskaltegian ikasitakoa kanpoan erabiltzea. Horretaz oharturik, duela urte batzuk AEK-k euskaltegitik kanpo euskara praktikatzeko zenbait programa eta ekintza jarri zituen abian. Ezagunenak dudarik gabe ahozkoak dira, mintzapraktika egitasmoak, hain zuzen ere. Talde hauetan euskaldun osoak eta euskara ikasleak asteen behin elkartzen dira haiek hautatutako egunean eta lekuan euskaraz mintzatu eta ongi pasatzeko. Informazio gehiago www.praktikatu.blogspot.com web-gunean.
- Bestalde, irakurzaletasuna bultzatzeko asmoz, AEK-k berak argitaratzen duen **AIZU!** aldizkaria errezibituko dute hilabetero ikasle guztiek.



IZEN EMAITEKO PERMANENTZIAK 2012/13

GAU ESKOLAK/Nun ?	Permanentziaren lekua	NOIZ ?	TEL
AMIKUZE	Palais de Justice karrika 17 DONAPALEU	Irailaren 17tik 21era : 14:00-20:00 eta irailaren 22n : 9:00-12:00	05 59 65 89 21
ARBONA	Aranzola etxea	<i>Irailaren 20an osteguna eta 26an asteazkena, 18:00-20:00</i>	05 59 41 97 31
AZKAINE	Jauregia elkartearen etxea	Irailaren 17an astelena eta 20an, osteguna, 15:00 - 19:00	06 85 40 57 13
BAIGORRI	Herriko etxean	Buruilaren 15ean ebiakoitza, 18:00-20:00	05 59 37 79 15
BAIONA	Marengo karrika 22	Irailaren 17tik 25era 9:00-19:00 astelehenetik ostiralera	05 59 59 50 99
BARDOZE		Ikus Hazparne	05 47 02 48 74
BESKOITZE	Lokarri ezker paretan	Sartze bilkura : irailaren 27an, ostegunarekin 19:00tan	05 59 31 73 78
BOKALE	Baionako Gau Eskolan, Marengo karrika 22	Ikus Baiona	05 59 59 50 99
DONIBANE L./ ZIBURU	Eskoletako atekamotza (imp. des Ecoles)	Irailaren 17an : 14:30-19:00 Irailaren 18, 19 eta 20an : 10:30-13:00 eta 15:30-17:30	05 59 26 46 02
GARAZI	Gau Eskolan Trinketako plaza 3	Buruilaren 10etik 21era, astelehenetik ostiralera, 10:00-19:00	05 59 37 79 15
HAZPARNE	Eihartzean	irailaren 10etik 24ra larunbatak barne 9:00-14:00	05 47 02 48 74
HENDAIA	Merkataritza karrika 11	Irailaren 12tik 19ra : 11:00-15:00 eta 17:00-19:00	05 59 20 55 30
HIRIBURU	Elizaldea etxea (Uhaina elkartearen lokala)	Irailaren 12an, asteazkena : 18:00-20:00 eta irailaren 15an, larunbata 10:00-12:00	06 32 64 11 42
ITSASU	Gau Eskolan (Goxoki), Xilarrenea karrika	Sartze bilkura : irailaren 20an ostegunarekin 20:00tan	05 59 93 40 83
KANBO	Errobi ikastola	Sartze bilkura : irailaren 19an asteazkenarekin 20:00tan	
LEHUNTZE	Ezkontzetako gelan	Informazio bilkura : irailaren 28an ostiralarekin 19:00tan	05 59 31 55 49
MIARRITZE	Jules Ferry karrika 9	Irailaren 17tik 21era 9:00 -13:00 eta 15:00 -19:00	05 59 22 30 32
MUGERRE	Mugerre barneko elkartearen gelan	Irailaren 19an, asteazkena, 19:00tan	05 59 42 61 19
SARA	Gaztetxean	Irailaren 19an asteazkena : 15:00 - 19:00	06 85 40 57 13
SENPERE	Elkartetxea (liburutegiaren ondoan)	Irailaren 18an asteartea 15:00 - 19:00	06 85 40 57 13
URRUNA	Posta gela	Sartze bilkura irailaren 20an, ostegunarekin, 19:00tan	05 59 20 55 30
UZTARITZE	Lagunen etxea	Irailaren 17tik 28ra 10:00-12:15 eta 16:00-19:00 Astelehenetik ostiralera, astearte goiza salbu	05 59 70 30 74
XIBERUA	Gau Eskola, Barennes karrika - MAULE	Setemearren 17tik 22ra 9:00-12:00 eta 14:00-20:00	05 59 19 18 44
PAUE		Harremanetan sar : laguntetamaita@wanadoo.fr	
TOLOSA		Harremanetan sar : euskara.tolosa@gmail.com	
BORDALE,		Harremanetan sar : http://www.euskaletxea.org/	06 85 55 37 37
PARISE		Harremanetan sar : http://www.eskualetxea.com/sustraiak/	